

# 2015eko MEMORIA GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA



## AURKEZPENA

2015ean zehar egindako jarduera garrantzitsuenak biltzen ditu Memoria honek, kudeatutako programa eta zerbitzu ezberdinak kontsultatu eta aztertzeko tresna bat eskaintzeko asmoz, baita Gizarte Politikako Departamentuaren jarduerari buruzko zeharkako ikuspegi globala eskaintzeko asmoz ere.

2015. urtean zehar, Gizarte Politikako Departamentuak 27.381 gipuzkoarri eman zien arreta zerbitzu eta prestazioen bidez; hau da, 2014. urtearekin alderatuta, 2.459 pertsona gehiagori.

Bigarren mailako arretako gizarte zerbitzu zein prestazioen sarea zabaldu den arren, ez da nahikoa Gipuzkoako herritarren zaintza premien gero eta handiagoei aurre egiteko. Horregatik, bereziki garrantzitsua da Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 Mapan jasotako plangintza behar bezala betetzea, hala, zaintzarako eskubide unibertuala betetzera iristeko.

Desgaitasun fisikoa eta buru nahasmena duten pertsonen arreta emateko modulua aurkeztu da, hain zuzen ere Gizarte Politikako Departamentuaren, Gipuzkoako Ezinduen Kontseiluaren eta esparru horretan zerbitzuak ematen dituzten hirugarren sektoreko entitate nagusien artean hausnarketa bateratua egin ondoren.

Beste alde batetik, Irun eta Arrasaten abian jarritako esperientzia pilotuei buruzko txostena ere argitaratu da, Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa jasotzen duten pertsonen eta horien familien errealitatea ezagutzeko, eta egoera horien jarraipena egiteko eredu bat diseinatu eta probatzeko. Informazio hori oinarritzat hartuta, Gipuzkoako gizarte zerbitzu guztietan modu praktiko, iraunkor eta integragarrian aplikatu nahi da eredu hori.

**Donostian, 2016ko maiatzaren 10ean**



**Maite Peña Lopez**  
**Gizarte Politikako Foru Diputatua**

## AURKIBIDEA:

<b>1.- SARRERA .....</b>	<b>4</b>
<b>1.1 Xedea, ikuspegia eta baloreak.....</b>	<b>4</b>
<b>1.2 Egitura eta funtzioak .....</b>	<b>5</b>
<b>1.3 Organigrama .....</b>	<b>7</b>
<b>1.4 Aurrekontua .....</b>	<b>8</b>
<b>2.- DEPARTAMENTUKO JARDUERA .....</b>	<b>9</b>
<b>2.1. Arretari buruzko datu globalak .....</b>	<b>9</b>
<b>2.3. Diru laguntzak.....</b>	<b>19</b>
<b>3.- ZENTRO PROPIOAK ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK .....</b>	<b>19</b>
<b>3.1.- Zentro propioak.....</b>	<b>19</b>
3.1.1. Egogain Gerontologia Zentroa.....	19
3.1.2. Pasaiako Itsaso Etxeko Ostaturia .....	20
<b>3.2.- Erakunde autonomoak.....</b>	<b>20</b>
3.2.1 Uliazpi Fundazioa .....	20
3.2.2 Kabia.....	21
<b>4.- ZEHARKAKO JARDUERAK .....</b>	<b>23</b>
<b>4.1 Idazkaritza Teknikoa.....</b>	<b>23</b>
<b>4.2. Kudeaketa ekonomikoa .....</b>	<b>24</b>
<b>4.3. Ikuskapenak .....</b>	<b>25</b>
<b>4.4. Inbertsioak.....</b>	<b>25</b>
<b>4.5. Gizarte Ekimena .....</b>	<b>26</b>
<b>4.6. Garapenerako lankidetzak .....</b>	<b>29</b>
<b>4.7 Esparru soziosanitarioa .....</b>	<b>30</b>
<b>4.8 Informazio estatistikoa .....</b>	<b>30</b>
<b>4.9 Ikerketa eta ezagutzaren kudeaketa.....</b>	<b>31</b>
<b>4.10 Hobekuntza prozesuak .....</b>	<b>32</b>
<b>4.11 Partaidetza eta lankidetzak beste erakunde, departamentu eta entitateekin.....</b>	<b>33</b>
<b>4.12 Partaidetza kontseiluak .....</b>	<b>34</b>
<b>5.- 2015ean ONARTUTAKO ARAUAK .....</b>	<b>35</b>
<b>6.- BALIABIDEAK ETA PROGRAMAK.....</b>	<b>37</b>
<b>6.1 Balorazioa, Orientazioa eta Kalifikazioa .....</b>	<b>38</b>
6.1.1. Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioa eta diagnostika .....	39
6.1.2 Esku hartze sozialaren zerbitzua arreta goiztiarrean.....	40
<b>6.2 Etxeko laguntza .....</b>	<b>41</b>
6.2.1 Egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko zerbitzua.....	42
6.2.2 Etxez etxeko laguntza zerbitzua .....	43

6.2.3 Sendian Programa.....	44
6.2.4 Laguntza teknikoan eta ingurune fisikora egokitzeko laguntzen zerbitzua .....	45
6.2.5 Tutoretza Zerbitzua.....	46
<b>6.3 Mendekotasun egoeran eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako arreta zentroetan...</b>	<b>47</b>
6.3.1 Adineko pertsonentzako egoitza zentroak .....	48
6.3.2.- Mendekotasun egoera dauden adineko pertsonentzako eguneko zentroak.....	49
6.3.3 Desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza zentroak .....	50
6.3.4 Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak.....	51
<b>6.4 Buru gaixotasuna duten pertsonen arreta zentroetan.....</b>	<b>52</b>
6.4.1 Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak .....	53
6.4.2 Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak .....	54
<b>6.5 Gizarteratzea .....</b>	<b>55</b>
6.5.1 Bazterketa eta marginazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak .....	56
6.5.2 Gizarteratze premiei erantzuteko eguneko zentroak .....	57
6.5.3 Laguntza espezializatua programa.....	58
6.5.4 Zentro okupazionalak eta prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuen programa.....	59
6.5.5 Gizarteratze programak .....	60
6.5.6 Gazteentzako laguntza ekonomikoak .....	61
<b>6.6 Gizarteratzea eta indarkeria matxistaren emakume biktimen laguntza .....</b>	<b>62</b>
6.6.1 Etxeko tratatu txarren emakume biktimentzako egoitza zentroak .....	63
6.6.2 Etxeko tratatu txarren emakume biktimentzako programak .....	64
6.6.3 Gizarte larrialdietarako foru zerbitzua (GLFZ) .....	65
<b>6.7 Haurren eta nerabeen babesa .....</b>	<b>66</b>
6.7.1 Adingabeentzako pertsonentzako egoitza zentroak .....	67
6.7.2 Babesgabezia dauden adingabeentzako familia harrera zerbitzua .....	68
6.7.3 Adopzioa sustatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzua .....	69
6.7.4 Familiekin gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua .....	70
6.7.5 Haurren eta nerabeen babes zerbitzuaren laguntza ekonomikoak .....	71
<b>6.8 Mendekotasunerako eta aldizkako prestazio ekonomikoak .....</b>	<b>72</b>
6.8.1 Mendekotasunari buruzko 39/2006 legearen ondoriozko prestazioak.....	73
6.8.2 Bestelako aldizkako prestazio ekonomikoak (KGP, GOF, EGLP).....	74
6.8.3 Bestelako aldizkako prestazio ekonomikoak (DBL) .....	75

## 1.- SARRERA

### 1.1 Xedea, ikuspegia eta baloreak

Gure **xedea** da Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizun publikoa betetzea, hau da, gizarte zerbitzuen sistemako eskumen esparruaren barne, herritarren eskubideak bermatzea, beste gizarte eragileekin elkarlanean, Gipuzkoako pertsonen bizi baldintzak eta kohesio soziala hobetzen laguntzeko.

Departamentu honen **ikuspegia** honako hau da: udalekin, hirugarren sektoreko entitateekin, bestelako administrazio publikoekin eta bestelako laguntzaileekin, Gipuzkoan gizarte zerbitzu sare integratu eta partekatua eraikitzeko prozesua sustatzen duen erakundea idaztea, eta bere jarduerari esker, Gipuzkoako sare soziala, solidaritatea eta kohesio soziala indartzea.

Erabiltzaileen bizi kalitatean eta ongizatean eragin positiboa duten zerbitzu eta gizarte laguntzak ematen dituen erakundea izatea, eta prestazio horien aurrean, Gipuzkoako herritar guztiak harro sentitzea.

Artatutako pertsonen bizi kalitatea sustatzeko arreta eredia ezarri du Gizarte Politikako Departamentuak; eta horretarako, printzipio hauek hartu ditu oinarritzat, besteak beste:

- Pertsonalizazioa
- Osotasuna
- Pertsona bere harreman sarearekin batera tratatzea
- Gertutasuna
- Jarraitutasuna
- Laguntza
- Onuradunen erantzukizuna
- Autonomiaren sustapena
- Eskubideen ikuspegia
- Plangintza
- Aurrea hartzea eta prebentzioa

Bere ikuspegia betetzeko kudeaketa ezartzen duen erakundea izatea; horretarako, abian jarritako jarduerak, artatutako eta lagundutako eta lagundutako pertsonen bizi kalitatean eta asebetetzean dituzten ondorioak neurtu eta aztertzen ditu.

Hori guztia egiteko orduan, lagundutako pertsonen laguntza jasotzen duen erakundea izatea, baita gizarte arretarako sare hau osatzen dugun bestelako administrazio eta erakundeetako langileena ere.

Informazioa, komunikazioa eta ikaskuntza ezagutza eta berrikuntza sortzeko erabiltzen dituen erakundea izatea, baita horiek eguneroko jardueretan aplikatzen dituen ere.

### **Baloreak:**

- Erantzukizun publikoa
- Gardentasuna
- Pertsoneri orientatua
- Pertsona eta kolektiboen erantzukizuna, autonomia eta jabeakuntza.
- Pertsonalizazioa
- Gertutasuna
- Partaidetza
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna
- Justizia soziala
- Ehun sozial eta komunitarioa indartzea

### **1.2 Egitura eta funtzioak**

Legaldi aldaketa dela eta, 2015. urtean bi egitura dekretu egon dira indarrean.

2012ko apirilaren 2ko 13/2012 Foru Dekretuak<sup>(1)</sup>, Gizarte Politikako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak xedatutakoaren arabera, funtzio hauek dagozkio Gizarte Politikako Departamentuari:

- Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako arreta
- Desgaituentzako arreta
- Arrisku larrian edo babes gabe dauden adingabeentzako laguntza
- Adopzioak
- Gizarteratzea eta pobreziaren aurkako borroka
- Indarkeria matxistaren emakume biktimen laguntza
- Gizarte larrialdietako laguntza
- Garapenerako lankidetzak
- Elkarleen, boluntarioen eta partaidetzaren sustapena
- Zerbitzuak baimendu, homologatu eta ikuskatzea

---

(1) Egitura dekretua: <https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2012/04/16/c1203501.pdf>

- Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

2015eko ekainaren 24ko 3/2015 Foru Dekretuak<sup>(2)</sup>, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoak (2015/06/25ean jarri zen indarrean), xedatutakoaren arabera, eginkizun esparru eta funtzio hauek dagozkio Gizarte Politikako Departamentuari:

- Mendekotasuna dutenentzako arreta
- Gizarte zerbitzu komunitarioak
- Asistentzia zentro propio nahiz hitzartuak
- Desgaitasuna
- Enplegu politika aktiboak
- Ekintza komunitarioa eta gizarteratzea
- Adingabe babesgabeak
- Adopzioak
- Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

Departamentu horri atxikitzen zaizkio Uliazpi Fundazioa eta Kabia foru organismo autonomoak.

Esleituta dituen funtzioak garatzeko, Gizarte Politikako Departamentuak, zerbitzuen prestazioa antolatzeko bi modu ditu: bai zuzenean, baliabide propioak erabiliz, bai ekimen pribatuarekin lankidetzan, hain zuzen ere 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, V. tituluan xedatutako formulen arabera.


Gizarte Politikako Departamentuaren egiturari dagokionez, Foru Diputatua da departamentua zuzendu eta antolatzeko burua. Foru Diputatu hori da Departamentuko organo gorena, baita Diputatuen Kontseiluko kidea ere.

Departamentuari esleitutako funtzioak betetzeko 4 zuzendaritza nagusi, 2 foru organismo autonomo (Uliazpi Fundazioa eta Kabia) eta 5 zerbitzu sortu dira. Guztira 231 funtzionario, 9 kontratupeko langilek eta 2 behin-behineko langilek lan egiten dute Departamentuaren esanetara, eta horietatik % 77 emakumeak dira.

---

<sup>(2)</sup> <https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/06/25/c1506116.pdf>

### 1.3 Organigrama



(1) Legealdi aldaketarekin, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentura pasa da Garapenerako Lankidetzazuzendaritza Nagusia



## 1.4 Aurrekontua


2015eko ekitaldian zehar programa bakoitzean egindako gastua hau izan da:

Programa		Egindako gastua (€)
01	Zerbitzu orokorrak	2.115.139
10	Desgaituentzako arreta	35.709.693
11	Adineko pertsonentzako arreta	131.578.432
20	Plangintza eta informazio sistemak	2.105.173
21	Inbertsio eta Gizarte Lankidetzeta Plana	10.664.908
22	Aldizkako prestazio ekonomikoak	80.365.048
30	Gizarteratzea eta indarkeria matxistaren emakume biktimen arreta	24.200.525
21	Haurren eta nerabeen babesa	41.033.146
40	Erakunde publikoak	15.489.718
	<b>Guztira</b>	<b>343.261.782</b>

## 2.- DEPARTAMENTUKO JARDUERA


### 2.1. Arretari buruzko datu globalak

Ondoko grafikoan erakusten dira zentroetan zein zerbitzuen bidez arreta jaso duten pertsona motak, baita prestazio ekonomikoen hartzaile kopurua ere.



Guztira 27.381 pertsonari eman zaie arreta, eta horietatik % 60,34 emakumeak dira.

2011-2015 epean zehar arreta emandako pertsona kopuruaren bilakaera hurrengo grafikoan ageri da (\*):



(\* ) 2012an behera egin zuen arreta emandako pertsonen kopuruak, Diru Sarrerek Bermatzeko Errentaren kudeaketa Lanbideri eskualdatu zitzaielako, eta teleasistentzia zerbitzuen kudeaketa berriz Eusko Jaurlaritzak hartu zuelako bere gain.

Halaber, balioespen eskaerek nabarmen egin dute gora, 2015eko uztailetik aurrera, 1.1 mailarekin balioetsitako pertsonen mendekotasunari lotutako prestazioak jasotzeko eskubidea aitortu baitzen. Balioespen eskaerek gora egiten dutenez, desgaitasun balioespen eta RAI balioespen eskaerek ere gora egin dute.

2015. urtean zehar, guztira 15.412 pertsona ezberdinen mendekotasun, desgaitasun eta RAI balioespen egin ziren.

## 2.2 Jarduera garrantzitsuenak eta programen analisia

### Jarduera orokorrak

2015. urtean zehar, 135 plaza berri itundu dira gizarte baliabide ezberdinetan. Zehazki, plaza horiek honela banatu dira:

Baliabidea	Plazak
Adinekoak-Egoitzak	31
Adinekoak-Eguneko zentroak	9
Desgaitasuna-Egoitzak	21
Desgaitasuna-Eguneko zentroak	16
Desgaitasuna-Tailer okupazionalak	30
Gizarteratzea-Egoitzak	14
Gizarteratzea-Eguneko zentroak	6
Adingabeak-Egoitzak	8
<b>Guztira</b>	<b>135</b>

Aipagarria da, erakunde arteko finantzaketa akordioa adostu ondoren, hain zuzen ere zerbitzu gehiago, estaldura handiagoa eta zabalagoa emateko, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzarrak 2015eko urriaren 6an egindako bilkuran, urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa**, onartu zuen.

Halaber, 2015eko otsailaren 3ko 4/2015 Foru Dekretua, **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzekoa**, ere onartu da. Horren helburua da erregistro egitura, antolaketa eta prozedura sortu eta arautzea. Erregistro horretan erregistratuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren titularitateko

erakunde, zerbitzu eta zentro guztiak, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barne jarduten duten titulartasun publiko eta pribatuko bestelako erakunde, zerbitzu eta zentroak ere.

**Behagi-Gizarte Zerbitzuen Behatokiari** dagokionez, erabiltzaile kopuruak % 200 baino gehiago egin du gora; 2014an 1.340 erabiltzaile izan zituzten zerbitzu horrek, eta 2015ean, berriz, 4.586.


**Gizarte ekimenerako laguntzen** bidez, irabazte asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak eman zaizkie, guztira 192 programa egiteko, zehazki, esparru hauetan:

- Esku-hartze soziala
- Prebentzio eta sentsibilizazio programak
- Ikerketa eta berrikuntza proiektuak

“Gizarte zerbitzuei esker. Zuri esker” lemapean kanpaina bat jarri zen abian, herritarrek beren eskubideak gauzatu eta gizarte zerbitzuak erabiltzea bultzatzeko, baita kalitatezko eta guztientzako gizarte zerbitzu erabilerrazen sistema publikoaren gizarte onurari buruzko iritzi publikoa hobetzeko ere.

Arretari buruzko datu globalak aztertzen baditugu, aipagarria da aurreko urteko datuekin alderatuta, arreta emandako pertsonen kopuruak % 10 egin duela gora, 2015ean 27.381 pertsona ezberdinei eman baitzaie arreta.

Zentro mota ezberdinetako egonaldiak aztertzeke, egoitza baliabideetako arretan egon den bilakaera ikus daiteke ondoko grafikoan:



## Ezinduen eta desgaituen laguntza

- **Desgaituei eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonen laguntza** emateko eredu berri bat aurkeztu da 2015ean, laguntza eredu aldaketak ezartzen dituena. Eredu berri horrek desgaituen trebezia eta gaitasunen arteko arrakala gainditzeko laguntza ematen du, eta sektoreko hurrengo jardueretarako oinarriak ezartzen ditu. Gipuzkoan desgaituekin lan egiten duten entitate nagusiek bermatzen dute eredu hori: hain zuzen ere, Aspacek, Atzegik, Goyeneche Fundaziok, Gautenak, Aita Mennik eta Uliazpik.

- 2015eko martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretua, **Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena**, onartu da. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko prozedura arautzen du dekretu horrek, hain zuzen ere, pertsona horiei balioespena egin, beren eskubideak aitortu eta arreta plan pertsonalizatu bat egin ondoren.

- Horrez gain, 2015eko apirilaren 21eko 12/2015 Foru Dekretua onartu da, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoitzetan **aldi baterako egonaldiak** arautzen dituena, onartu da; mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen behin behineko egoitza egonaldiak arautzeaz gain, mendekotasun egoeran dauden desgaituen egoitza egonaldiak ere arautzeko, ordain arte, azken horiek ez baitzuten berariazko araudirik.

- 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa ere onartu da.
- 2015eko maiatzean lankidetzaz hitzarmena sinatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Azkoitiko, Elgoibarko, Villabonako eta Zumaiako udalen artean, udalerriri horietako udal egoitzen kudeaketa **Kabiara** eskualdatzeko.
- Irun eta Arrasaten abian jarritako esperientzia pilotuei buruzko txostena ere argitaratu da, **Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa jasotzen duten pertsonen eta horien familien errealitatea ezagutzeko**, eta egoera horien jarraipena egiteko eredu bat diseinatu eta probatzeko. Informazio hori oinarritzat hartuta, Gipuzkoako gizarte zerbitzu guztietan modu praktikoa, iraunkor eta integragarria aplikatu nahi da eredu hori.
- 2015eko uztailetik aurrera, **1 graduko eta 1 mailako mendekotasun mailarekin balioetsitako pertsonen mendekotasunagatikoko prestazioak jasotzeko eskubidea aitortu zen**; horien erdian zerbitzuren bat jasotzen zuten (eguneko zentroa, teleasistentzia, etxez etxeko arreta zerbitzua...) baina ez zuten laguntza ekonomikorik aitortuta, gainerako mendeko pertsonen moduan.
- Horrez gain, plan pilotu bat jarri da abian osasun txosten berria ezartzeko, eta era horretan, txosten hori modu sistematizatuan eskuratzeko, erabiltzaileak hori eskuratzeko hitzordurik eskatu beharrik gabe, eta bertan ageri den informazio maila balioespen tresnen arabera izan dadin. Txosten hori faseka ezarriko da, eta 2016an zehar Gipuzkoa osora zabaltzea espero da.
- Adineko pertsonentzako egoitzetan plaza lortzeko **itxaron zerrendan** 51 pertsona gehiago daude, beraz, horrek esan nahi du, 2014ko datuekin alderatuta, % 7 areagotu dela itxaron zerrenda. Hala ere, eguneko zentroetan plaza lortzeko itxaron zerrenda nabarmen murriztu da; zehazki, 223 pertsonakoa izatetik 189 pertsonakoa izatera pasa zen 2015 amaieran.
- Balioespen atala berrantolatuta egin da, eta desgaitasunaren zein mendekotasunaren esparruan egiten diren balioespenak egiteko modua ere aldatu da. Desgaitasunari eta mendekotasunari lotutako balioespenak egiteko beharrezko informazioa lortzeko zerbitzua kontratu bakar batean bateratzeaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoa 4 eremu geografikotan banatu da; horietako bakoitzean, profesional anitzek osatutako lantaldeak eta balioespen taldeak ezarri dira.

Hurrengo taulan ageri dira **mendekotasunaren** esparruko adierazle batzuk, baita 2014. urtearekin alderatuta izan duten bilakaera ere:

Adierazlea	Balioa	Bilakaera
- Mendekotasun balioespen eskaera kopurua	13.049	+ % 19
- Urtean zehar amaitutako mendekotasun balioespen kopurua	10.662	+ % 5,70
- Mendekotasun balioespen eskaerei erantzuteko batez besteko epea	43,38	+15,84 egun
- Plaza itunduak egoitzetan	4.458	+31
- Plaza itunduak eguneko zentroetan	1.479	+9
- Okupazio portzentajea egoitzetan	% 99,24	+ % 0,5
- Okupazio portzentajea eguneko zentroetan	% 94,83	+ % 1,33
- Itxaron zerrenda egoitzetan	743	+ % 7,4
- Itxaron zerrenda eguneko zentroetan	189	- % 15
- Eskaera egin eta egoitza zerbitzuan plaza lortu arte igarotako denbora batez beste	139	+15 egun
- Eskaera egin eta eguneko zentro zerbitzuan plaza lortu arte igarotako denbora batez beste	165	+14 egun
- Errotazio indizea egoitzetan	1,32	+0,02
- Errotazio indizea eguneko zentroetan	1,35	-0,02

Hurrengo taulan ageri dira **desgaitasunaren** esparruko adierazle batzuk, baita 2014. urtearekin alderatuta izan duten bilakaera ere:

Adierazlea	Balioa	Bilakaera
- Desgaitasun balioespen eskaera kopurua	13.049	+18,51
- Urtean zehar amaitutako desgaitasun balioespen kopurua	6.385	+8,03
- Plaza itunduak egoitzetan	804	+21
- Plaza itunduak eguneko zentroetan	642	+16
- Okupazio portzentajea egoitzetan	% 99,5	+ % 0,65
- Okupazio portzentajea eguneko zentroetan	% 98,29	- % 0,11
- Itxaron zerrenda egoitzetan	104	- % 10
- Itxaron zerrenda eguneko zentroetan	50	+ % 14
- Eskaera egin eta egoitza zerbitzuan plaza lortu arte igarotako denbora batez beste	575	+8 egun
- Eskaera egin eta eguneko zentro zerbitzuan plaza lortu arte igarotako denbora batez beste	552	-215 egun
- Errotazio indizea egoitzetan	1,14	+0,1
- Errotazio indizea eguneko zentroetan	1,05	-0,01

### Buruko gaixotasuna duten pertsonen arreta

Agifeseek abian jarritako kanpaina babestu da, hain zuzen ere buruko gaixotasunen ikuspegi soziala normalizatu eta horrelako gaixotasunei buruz naturaltasunez hitz egitea sustatzeko, kolektibo horrek gizarteratzeko eta lan merkatuan sartzeko dituzten oztopo handiak gainditzen laguntzeko.

Hurrengo taulan ageri dira **buruko gaixotasunen** esparruko adierazle batzuk, baita 2014. urtearekin alderatuta izan duten bilakaera ere:

Adierazlea	Balioa	Bilakaera
- Plaza itunduak egoitzetan	198	+6
- Plaza itunduak eguneko zentroetan	228	=
- Okupazio portzentajea egoitzetan	% 94,95	- % 3,49
- Okupazio portzentajea eguneko zentroetan	% 95,18	- % 2,63
- Itxaron zerrenda egoitzetan	54	- % 19
- Itxaron zerrenda eguneko zentroetan	21	- % 5
- Eskaera egin eta egoitza zerbitzuan plaza lortu arte igarotako denbora batez beste	383	+82 egun
- Eskaera egin eta eguneko zentro zerbitzuan plaza lortu arte igarotako denbora batez beste	101	+45 egun
- Errotazio indizea egoitzetan	1,19	-0,03
- Errotazio indizea eguneko zentroetan	1,18	=

### Gizarteratzea, indarkeria matxistaren emakume biktimen laguntza eta gizarte larrialdiak

- 2015ean **Gipuzkoako pobrezia eta bazterketa neurtzeko bigarren inkesta** egin zen, eta bertan bi gauza azpimarratu dira: alde batetik, egoera orokorrak hobera egin duela; eta bestetik, muturreko egoerek okerrera egin dutela.

- Gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzendutako zerbitzuak indartu dira; 20 plaza gehiago ezarri dira hainbat zentrotan; beraz, 2014ko datuekin alderatuta, aurrekontua 315.000 euro areagotu da.

- Horrez gain, 2015ean gizarteratze zerbitzuak ere **indartu** dira, bereziki **buruko gaixotasunak dituzten pertsonen eta kartzelan egon diren pertsonen zuzendutako egoitza zerbitzuak**. Halaber, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen **laguntza emateko programa**



**espezializatua** ere areagotu egin da, Batzar Nagusiek 2013ko uztailean onartutako txostenean, “Pobretutako herritarren beharrak eta eskaini beharreko baliabideak zehazteko talde txostengilearen ondorioen txostena” izenekoan ageri ziren gomendioak jarraituz.

- **Gizarteratzeko erakunde arteko proiektuak, Urumea** ertzean egiten ari denak, azkar egin du aurrera, hasiera batean Astigarragan eta Hernanin bizitzen jarri ziren 91 familietatik 23 geratzen baitira gaur egun. 2016rako, kanpamendua erabat hustea espero da, 2012an abian jarritako gizarteratze prozesua amaitu ondoren; hain zuzen ere familia horiei etxebizitza berri bat lortu eta beren txabolak eraitsi ondoren.

- Indarkeria matxistaren biktimei harrera eta arreta emateko «Urrats» eta «Bidean» zentroen erabilera eta kudeaketa emakida kontratuak sinatu dira, baita indarkeria matxistaren emakume biktimen arreta zerbitzu soziojuridikoena ere.

- Indarkeria matxistaren emakume biktimei laguntza emateko zerbitzu berriak jarri dira abian. Arreta eredu berriak osoko laguntza ematen du, taldeko terapia, esku-hartze psikosoziala eta arreta soziojuridikoa emanez.

- Urtean zehar, gizarteratzeko bizitokietan % 7 egin du gora arreta emandako pertsonen kopuruak, eta % 11 gizarterako eguneko zentroetan.

Hurrengo taulan ageri dira **Gizarteratzearen** esparruko adierazle batzuk, baita 2014. urtearekin alderatuta izan duten bilakaera ere:

Adierazlea	Balioa	Bilakaera
- Plaza itunduak egoitzetan	444	+14
- Plaza itunduak eguneko zentroetan	160	+6
- Okupazio portzentajea egoitzetan	% 95,27	+ % 3,64
- Okupazio portzentajea eguneko zentroetan	% 91,88	- % 2,98
- Itxaron zerrenda egoitzetan	77	+ % 79
- Itxaron zerrenda eguneko zentroetan	14	- % 13
- Errotazio indizea egoitzetan	1,91	+0,06
- Errotazio indizea eguneko zentroetan	2,48	+0,17

## Haurren babes

- Haurren babesaren esparruan, urteko **jakinarazpen** kopuruak behera egin du (276 jakinarazpen guztira, 2014an 300 izan ziren).
- Beste alde batetik, **familia harrerak** nabarmen egin du gora 2015ean, abenduaren 31n 354 haur baitzeuden familia harreran. Horrez gain, kontua hartu behar da, 31 gazte, dagoeneko adinez nagusiak direnez, legezko babes neurriak jasotzen ez dituzten arren, loturak askatzeko programaren barne daudela.
- **Nazioarteko 11 adopzio** bakarrik egin dira. Beherapen horren arrazoi nagusia da jatorrizko herrialdeetako araudietan aldaketak egin dituztela, baina ekonomia krisiak ere eragina izan du joera horretan.
- Trebatu, Drom Egin, Bideratu, Garatu, Seguimiento, Safecare, e Incredible Years **esku-hartze programetan** 609 haurrei eman zaie arreta, beren etxeetan mantentzeko.

Hurrengo taulan ageri dira **haurren babes** esparruko adierazle batzuk, baita 2014. urtearekin alderatuta izan duten bilakaera ere:

Adierazlea	Balio	Bilakaera
- Plaza itunduak egoitzetan	319	+8
- Okupazio portzentajea egoitzetan	% 86,83	- % 4,49
- Errotazio indizea egoitzetan	2,15	+0,01
- Egindako adopzioak (nazionalak+nazioartekoak)	16	+% 23,81
- Familia harreran dauden adingabeak (1.000<18 urteko tasa)	3,03	0,41


## Prestazio ekonomikoak

- 2015ean zehar, **39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak xedatutako prestazioen onuradunen kopurua 13.752** pertsonakoa izan zen. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak % 34,27 egin du gora, eta familia inguruneko zainketarako prestazioak % 12,4 egin du gora, batez ere, 2015eko uztailetik aurrera, 1.1 mendekotasun-mailarekin balioetsitako pertsonen prestazio horiek jasotzeko eskubidea aitortu baitzen.

- Mendekotasunerako prestazioen onuradunen kopuru osoaren banaketari dagokionez; 2015ean, onuradunen % 75,58k ingurune familiarrean zaintzeagatik prestazioa jaso zuten; % 23,57k laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jaso zuten, eta % 1ek zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.

- **Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzari** dagokionez, 2015eko apirilaren 21eko 11/2015 Foru Dekretua argitaratu da, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatutako, kontratatutako edo itunduko egoitza zentroetako pertsonak, baldin eta ekarpen ekonomikodun plaza bat betetzen badute eta hori ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez badute, erabiltzaile gisa Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jaso ezin dutenez, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza jaso dezaten.

- 2012an abian jarri zen laguntza horiek eta hasiera batean nabarmen gora egin zuen arren, azken urte eta erdian egonkortu egin da onuradun kopurua, ondoko grafikoan ageri den moduan:



### Garapenerako lankidetzak

Ildo estrategiko bat jarri da abian, eta horren bidez zuzeneko lankidetzako zazpi hitzarmen sinatu dira:

- Forum Mulher, Mozambique (Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko idazkaritza), 115.000 euro.
- Zimbabwe Small Holder Organic Farmer's Forum (ZIMSOFF), Zimbabwe (Vía Campesinako Nazioarteko Jarduera Idazkaritza), 115.000 euro.
- Euskal Fondoa-Oficina del Historiador de La Habana, Kuba, 115.000 euro.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundea, 35.000 euro.

- Euskal Fondoa-Sahara Koordinazio Unitatea, 60.000 euro
- Emakumeen Mundu Martxaren Euskal Herriko ordezkartza, 50.000 euro.
- Etxalde, Nekazaritza Iraunkorra Elkartea, 50.000 euro.

### 2.3. Diru laguntzak

2015ean diru-laguntza hauek eman dira:

- Gizarte Politikako Departamentuko gizarte ekimenerako laguntzen deialdia Ayudas a la iniciativa social, 2015. urterako.
- Garapenerako lankidetzaren alorreko diru-laguntzak cooperación para el desarrollo.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa eremuko udaletako gizarte zerbitzuen mankomunitateentzako diru laguntzak mancomunidades de servicios sociales en el entorno rural.
- 2015eko Subvenciones directas diru laguntza zuzenak.

## 3.- ZENTRO PROPIOAK ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

### 3.1.- Zentro propioak

#### 3.1.1. Egogain Gerontologia Zentroa

Eibarreko Egogain Gerontologia Zentroak zerbitzu hauek ematen ditu gaur egun:

- . Egoitza zentroa: 155 plaza.
- . Adineko pertsonentzako eguneko zentroa: 28 plaza.
- . Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa: 10 plaza
- . Buru nahasmendu larria duten pertsonentzako egoitza unitatea: 13 plaza

Abuztuan zehar, 13 pertsoneri eman zaie arreta behin behineko egonaldietan.

19 pertsonen praktikak egin dituzte zenbait diziplinetan: psikologian, gizarteratzean, zaintza laguntzaile teknikariek esparruan, erizaintzan... 5.500 orduko prestakuntza praktikoa gutzira.

Inbertsioen atalean, aipagarria da hainbat igogailu aldatu direla, zehazki, Zentroko espazio ezberdinak lotzen dituzten hiru igogailu.

Aurreko urtean ur eta berogailu zirkuitua aldatzeko abian jarritako obra amaitu ziren 2015. urtean.

### **3.1.2. Pasaiako Itsaso Etxeko Ostatua**

Pasaiako Itsaso Etxeko Ostatuak ostatua ematen die iragaitzazko marinei, portuetan zein itsasontzietan daudenei. Horretarako 5 gela bikoitza eta banakako 4 gela ditu.

2015ean zehar, 2.258 ostatu-gau egin dira bertan.

## **3.2.- Erakunde autonomoak**

### **3.2.1 Uliazpi Fundazioa**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa da. 1989. urtean sortu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren desgaitasun intelektualdun pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko zerbitzuak eta laguntza emateko.

Uliazpin 300 pertsonak egiten dute lan gutxi gorabehera, zerbitzu eta zentro ezberdinetan banatuta.

Uliazpik 2015ean emandako zerbitzuen barne, honako hauek daude: egoitza edo etxebizitza arreta, 219 plazarekin; adingabekoentzako etxebizitza zerbitzua, 6 plazarekin; eguneko zentroa, 289 plazarekin; familia atsedenerako aldi bateko egonaldiak, 3.677 egonaldirekin; etxeko laguntza, 6 plazarekin; eta laguntza teknikoa.

Zerbitzu horiek zentro hauen bidez eman dira batez ere: Donostia eta Ategorrieta (Donostia), Fraisoro (Zizurkil), Zubieta (Hondarribia), Dr. Zubillaga (Bergara) eta Egogain zentroko solairu batean (Eibar).

2015ean zehar, oporraldietan familiei laguntza gehiago eman zaie, guztira 237 familiei eman baitzaie laguntza.

Horrez gain, Zubieta Zentroan energia eraginkortasuna hobetzeko proiektua amaitu da.

Fundazioaren kudeaketa sistema osatzen duten elementuen artean, 2015ean aipagarriak izan dira jarduera hauek:

- 2014-2015 Kudeaketa Planaren garapena.
- 2015-2017 Hitzarmen Kolektiboaren onarpena.

- Autoebaluazioa, kalitatea kudeatzeko FEAPS ereduaren arabera.
- Aginte Koadro Integrala berrikustea.

### 3.2.2 Kabia

Erakunde autonomo hau 2014an sortu zen, Gipuzkoako adineko pertsonentzako 16 udal egoitzen kudeaketa heinean-heinean bere gain hartzeko.

2015eko maiatzean lankidetzaz hitzarmena sinatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Azkoitiko, Elgoibarko, Villabonako eta Zumaiako udalen artean, udalerririk horietako udal egoitzen kudeaketa Kabiara eskualdatzeko.

Kabiak kudeatutako udal egoitzetan, 200 egoiliar daude, eta 24 pertsona eguneko zentroetan. Horietatik % 65 emakumeak dira.

Guztira 145 pertsona ari dira lanean erakunde autonomoan, eta horietatik % 95 emakumeak dira.

2015ean, Kabiak esparru hauek antolatu ditu:

- Espazio fisikoa egokitzea: Txara 1en lokal bat hornitu du
- Bere irudi korporatiboa zehaztu du
- Lanpostu zerrenda onartu du (87. GAO, 2015/05/17koa) eta urte amaieran, lanpostu zerrenda hori aldatu egin da Zumaiako San Juan egoitzako 3 langileak bertan sartzeko (1. GAO, 2016/01/04koa).
- Zerbitzu zentraletako lanpostu hauek bete dira: gerentea, ekonomista eta administraria.
- Gobernu Batzorde berria osatu da.
- Antolakuntza eta kudeaketa informatikoa antolatzeari ekin zaio.
- Egoitza elektronikoa abian jarri da.

Halaber, kontratazioak egiteko lehenengo deialdiak prestatu eta deitu ditu erakunde autonomoak.

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzarekin elkarlanean, hizkuntza eraginaren ebaluazioa (HEE) eta txostenean adostu da “euskara hasiera-hasieratik txertatzea erakundeetan”.

Udazkenean zehar komunikazio jardunaldiak egin ziren udalekin. Bilera bat egin zen 16 udal egoitzetako arduradun politiko eta teknikariek, eta horrez gain, bisitaldiak ere antolatu dira.

Azkenik, Gipuzkoako Batzar Nagusiek udal egoitzak Kaban integratzeko prozesua azkartzea eskatu zutenez, eskaera horri erantzunez, “Kabiaren eredu eta estrategia udalen eta Foru Aldundiaren artean modu bateratuan” osatzeko proiektua jarri da abian, bateratze prozesuak, plan estrategikoa, eredu, plan ekonomikoa eta udal egoitzen txertatze egutegia zehaztu eta adostu ahal izateko.

## 4.- ZEHARKAKO JARDUERAK

### 4.1 Idazkaritza Teknikoa

2015ean, kontratu hauek izapidetu ditu **Idazkaritza Teknikoak**:

#### ***1.- Mendekotasuna eta desgaitasuna:***

- Desgaitasuna balioesteko txosten mediko eta psikologikoak osatzeko zerbitzua, eta mendekotasuna balioesteko eskaera egiten duten pertsonen buruzko informazioa eskuratzeko zerbitzua.
- Etxean programaren bidez, laguntza produktu errekuaragarriak eman dira.
- Etxean programako laguntza produktu errekuaragarrien eta ordezeko piezen hornidura kontratatzeke Esparru Akordioa adostu da.

#### ***2.- Adinekoak:***

- Fisioterapia zerbitzua jarri da abian Eibarko Egogain gerontologia zentroan.
- Ileapaindegi zerbitzua jarri da abian Egogain zentroan.
- Gipuzkoako zaintzen esparruan, ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko ekimenak abian jartzeko azterlan zerbitzua jarri da abian.

#### ***3.- Babesgabeziaren dauden adingabeak:***

- Babesgabeziaren dauden adingabeei familia harrera profesionalizatua emateko laguntza zerbitzu teknikoa.
- Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuari osoko aholkularitza zerbitzua ematea, bere jardueraren esparruko berriazko gaien inguruan.
- Seme-alaben zaintzaren inguruan arazoak dituzten Familiekin psikologia, gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeke zerbitzuak.
- Babesgabeziaren dauden adingabeei egoitza harrera profesionalizatua emateko laguntza zerbitzu teknikoa.
- Babesgabeziaren dauden adingabeei egoitza harrera emateko zentron erabilera eta kudeaketa emakida, hain zuzen ere zentro hauena: Donostia (Uba), Hernani (Zikuñaga), Aia (Iturriotz Azpi) eta Irun (Azpilikueta).



- Babesgabezia dauden adingabeentzako babes zentroen erabilera eta kudeaketa emakida, hain zuzen ere zentro hauena: Urretxu, Legorreta, Arrasate, Igeldo, Azpeitia eta Eibar-Matsaria, babesgabezia dauden adingabeei egoitza harrera zerbitzu publikoa emateko.

#### **4.- Gizarte Larrialdiak:**

- Gizarte Larrialdien Foru Koordinazio Zerbitzuaren Baldintza Teknikoen Agirian xedatutako zerbitzu osagarriak.

#### **5.- Indarkeria matxistaren emakume biktimak:**

- Indarkeria matxisten biktimei harrera eta arreta emateko zentroen erabilera eta kudeaketa emakida.  
- Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako arreta sozio-juridikoko zerbitzua.

#### **Inbertsioak:**

- Txara I eraikinean balioespen unitate zerbitzua abian jartzeko egokitzapen obren proiektua (1.- Mendekotasuna eta desgaitasuna).  
- Soraluzen kokatutako adinekoentzako eguneko zentroa egokitzeko proiektuaren exekuzio obrak. (2.- Adinekoak)  
- Txara I eraikinean estalkiak eta argi-zuloak konpontzeko obra proiektuaren exekuzioa (2.- adinekoak)

## **4.2. Kudeaketa ekonomikoa**

Ondoko tauletan ageri dira 2015eko kontratu eta hitzarmenen kudeaketarako esleitutako aurrekontua, baita hori sektoreka nola banatu den ere:

Kolektiboa	Hitzarmenak		Kontratuak		Guztira	
	Kop.	Aurrekontua	Kop.	Aurrekontua	Kop.	Aurrekontua
Adinekoak	163	100.709.012 €	18	21.040.323 €	181	121.749.336 €
Desgaitasuna	22	24.334.819 €	9	3.928.838 €	31	28.263.657 €
Buruko gaitzak	12	5.642.116 €	4	866.109 €	16	6.508.225 €
Adingabeak	14	9.022.153 €	17	26.806.357 €	31	35.828.510 €
Gizarteratzea	27	20.146.123 €	3	1.828.702 €	31	21.974.825 €
Generikoak	3	166.470 €	2	228.915 €	5	395.385 €
<b>Guztira</b>	<b>241</b>	<b>160.020.693 €</b>	<b>53</b>	<b>54.699.244 €</b>	<b>294</b>	<b>214.719.937 €</b>

Hitzarmenak				
	Luzatuak	Aldatuak (*)	Berriak	Guztira
Adinekoak	80	86	9	175
Desgaitasuna	8	10	5	23
Buruko gaitzak	6	4	2	12
Adingabeak	13	1	0	14
Gizarteratzea	4	29	0	33
Generikoak	2	1	0	3
<b>Guztira</b>	<b>113</b>	<b>131</b>	<b>16</b>	

(\*) Hitzarmen batzuk hainbat aldiz aldatu ziren urtean zehar.

### 4.3. Ikuskapenak

2015ean zehar 453 ikuskapen egin dira, honela banatuta:

Baliabidea	Ikuskapen kop.
Adineko pertsonentzako zentroak	291
Desgaitasunen bat duten pertsonentzako zentroak	49
Buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroak	27
Babesgabezia dauden adingabeentzako zentroak	65
Gizarteratzeko zentroak	21
Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako zentroak	0
<b>Guztira</b>	<b>453</b>

Egindako ikuskapenen % 55,85 planifikatuak izan dira, eta gainerako % 44,15 planifikatu gabeak izan dira.

2015ean aurretiazko baimen bat eta funtzionamenduko 13 baimen eman dira. Aurretiazko baimenak ebazteko batez besteko epea 28 egunekoa izan da, eta funtzionamendu baimenena, berriz, 9,69 egunekoa.

### 4.4. Inbertsioak

Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzuak gizarte ekimenerako egiten den lankidetzaz eta Departamentuan egin beharreko inbertsioak osatu, garatu eta kontrolatzen ditu, hain zuzen ere zentro propioetan zein hitzartuetan ekipamendu sozialak eraiki edo egokitzeko. Horrez gain, gizarte ekintzari eta zentro propioen kudeaketari lotutako boluntarioritza sustatzeko ardura ere badu.

Halaber, Inbertsioetako Zerbitzuak Departamentuari atxikitako zentrozen artapenari buruzko jarraipena egiteko ardura ere badu (gutxi gorabehera 80 zentro).

Departamentuaren zentro propioak ez diren bestelako zentroetan beharrezko inbertsioak sustatzeko asmoz, 2015ean **1.208.789** euroko finantzaketak eman dira guztira proiektuetarako. Inbertsio horien xedea honako hau da, egindako jarduera motaren arabera sailkatuta:

Jarduera mota	Adinekoak	Desgaituak	Guztira oro har
Egoitza zentroak egokitzea	675.679 €		<b>675.679 €</b>
Egoitza zentroak handitzea	70.000 €		<b>70.000 €</b>
Eguneko zentroak sortzea		50.000 €	<b>50.000 €</b>
Eguneko zentroak handitzea	23.110 €		
Zentro okupazionalak berritzea		300.000 €	<b>300.000 €</b>
Bestelako zerbitzuak abian jartzea		90.000 €	<b>90.000 €</b>
<b>Guztira</b>	<b>768.789 €</b>	<b>440.000 €</b>	<b>1.208.789 €</b>

Departamentuaren zentro propioetan egindako inbertsioei dagokienez, 5.283.608,70 euroko gastua sortu da guztira. Inbertsio horien xedea honako hau da, egindako jarduera motaren arabera sailkatuta:

Jarduera	Zenbatekoa
Zentroak berritzeko lanak	2.381.487 €
Ekipamendua / aplikazio informatikoak	1.567.456 €
Altzariak	375.667 €
Eraikinak erostea	349.165 €
Eguneko zentroak sortzea	347.443 €
Instalazioak eta tresnak	243.097 €
Ibilgailuak erostea	19.204 €
<b>Guztira</b>	<b>5.283.609 €</b>

#### 4.5. Gizarte Ekimena

Gipuzkoako gizarte ekimena babesteko esparruaren barne, Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduten duten irabazte asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateentzako diru laguntzen deialdia jarri zen abian 2015ean.

Hiru diru laguntza ildo ezarri dira: gizarte esku-hartze programak, erakunde eskatzaile gehienek jarduerak osatzen dutenak; prebentzio eta sentsibilizazio ekintzak eta ikerketa zein berrikuntza proiektuak.

2015erako diru-laguntza deialdiaren emaitza hau izan da: **816.642** euro eman dira guztira diru laguntzetan, era honetan banatuta:

Esparrua	1. ildo		2. ildo		3. ildo	
	Prog. kop.	Diru-laguntza	Prog. kop.	Diru-laguntza	Prog. kop.	Diru-laguntza
Mendekotasuna edota desgaitasuna duten pertsonak	111	499.536 €	32	77.557 €	1	5.000 €
Gizarteratzea	22	152.376 €	5	11.371 €	1	4.995 €
Babesgabeziaren dauden adingabeak	7	35.785 €				
Adinekoak	8	17.308 €				
Indarkeria matxistaren emakume biktimak	1	2.750 €				
Familia	1	4.664 €	2	3.541 €		
Boluntarioria			1	1.759 €		
<b>Guztira</b>	<b>150</b>	<b>712.419 €</b>	<b>40</b>	<b>94.228 €</b>		<b>9.995 €</b>

**Elkarteen eta boluntarioen** esparruan:

- Urtean zehar boluntarioekin eta elkarte kudeaketarekin zerikusia duten 6 ikastaro antolatu dira, eta bertan 71 pertsonak parte hartu dute. Ikastaroak Donostian, Elgoibarren, Tolosan, Zumarragan eta Errenterian egin dira.

- **Hezkide Eskolarekin sinatutako hitzarmenari** esker, boluntarioen sustapenerako Gizalde programa garatu da, eta horren bidez jarduerak hauek egin dira:

**- Bitartekaritza:**

Boluntarioaren Bulegoan 1.150 bisitaldi jaso dira, eta 3.726 aldiz eman da arreta posta elektronikoko, telefono eta fax bidez. 50.516 aldiz kontsultatu da webgunea.

Jarduera boluntarioren bat egiteko interesa duten pertsonak 334 kontsulta egin dituzte, eta horietatik 100 pertsona irabazte asmorik gabeko erakunderen batean boluntario gisa lanean hasi dira.

Erakundeekin 30 bilera egin dira boluntarioen, kolektiboen eta programen lana ezagutzeko.

#### ***- Hedapena:***

Boluntariotzari buruzko 9 hitzaldi egin dira, eta horietan 213 pertsona inguruk parte hartu dute.

Ireki Begiak kanpainak, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan abian jarritakoak, gazteek boluntario gisa zenbait erakundetan parte hartzea sustatzea du helburu. 15 eta 20 urte bitarteko 537 gazteekin jarri da abian kanpaina hori, eta 9 udalerritako 10 zentroetan garatu da, 58 ekintza zehatzen bidez.

Hirugarren sektoreko erakundeekin 2 azoka egin dira.

39 buletin elektronikoa zabandu dira harpidetutako 1200 posta helbideen artean banatuta.

#### ***- Materiala maileguan ematea:***

Programa honen barne 278 eskaera jaso dira ikus-entzunezko, azoketarako edo intendentzia materialak erabiltzeko, barne zein kanpo jardueretarako.

- **Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan** parte hartu eta horrekin lankidetzan jardun da, baita **SAREGINEZ**ekin ere, Gipuzkoako Entitate eta Boluntariotza Koordinakundearekin.

- Horrez gain, Europako Kultur Hiriburuaren ekimenetan parte hartuko duten boluntarioei aholkularitza eta kontrola egiteko taldean ere parte hartu da.

- Bestalde, Gipuzkoako Boluntarioen Urteko Sariari dagokionez, 2015. urteko edizioaren saria Gipuzkoako Elikagaien Bankuari eman zaio.

- Txara 1 (Gizagune) eraikinean elkarteek erabiltzeko espazioei dagokienez, 2015. urtean 6 elkarte berri hasi ziren espazio hori erabiltzen, eta elkarte batek baja eman zuen. Momentu honetan, 34 elkartek

erabiltzen dute espazio hori entitatearen egoitza gisa, erabiltzaileei arreta emateko, eta jarduerak zein programak kudeatu zein antolatzeko, besteak beste.

#### 4.6. Garapenerako lankidetzak

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritzaren helburua da lankidetzarako politika publiko propioa finkatzea eta Foru Aldundia eragile bihurtzea, bai jarduerak zuzenean eginez, bai horretarako eragile estrategikoak erabiliz. Legealdi aldaketaren ondorioz, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentura lekualdatu da zuzendaritza hori.

Otsailean argitaratu zen 2015eko diru-laguntza deialdia, 3.098.600 euroko aurrekontuarekin.

**32 proiekturi** eman zaie diru laguntza, honela banatuta:

Kolektiboa	Aurkeztutako proiektuak	Aurkeztutako aurrekontuak	Onartutako proiektuak	Emandako aurrekontuak
I. Eranskina: Hegoaldeko herrialde pobretuetako proiektuak	31	4.124.434,44 €	15	2.211.195 €
II. Eranskina: Gizarte eraldaketarako eta garapenerako hezkuntzaren inguruko proiektuak	12	1.004.560,21 €	9	743.019 €
III. Eranskina: Ekimen edo ekintza puntualetarako diru laguntzak.	11	247.892,25 €	8	180.000 €
<b>Guztira</b>	<b>54</b>	<b>5.376.886,90 €</b>	<b>32</b>	<b>3.134.214 €</b>

Halaber, zuzeneko lankidetzak ildo bat jarri da martxan 2015ean, eta horren bidez, 9 lankidetzak hitzarmen sinatu dira.

Zuzeneko lankidetzak	Zenbatekoa
1.- Etxalde, Nekazaritza Iraunkorra Elkarteak	50.000 €
2.- Forum Mulher, Mozambique (Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko idazkaritza)	115.000 €
3.- Euskadiko GGKEen Koordinakundea	35.000 €
4.- ZIMSOFF (La Vía Campesina)	115.000 €
5.- Hegoa Elkarteak-Nazioarteko Lankidetzak eta Garapenera buruzko Ikasketak Institutua	115.000 €
6.- Emaús Gizarte Fundazioa (Saretuz)	35.000 €
7.- Euskal Fundazio-Sahara Koordinazio Unitatea	80.000 €
8.- Euskal Fundazio-Oficina del Historiador de La Habana, Kuba	65.000 €
9.- Euskal Herriko Mundu Martxa/Emakumeen Mundu Martxaren Euskal Herriko ordezkariak	44.000 €
<b>Guztira</b>	<b>654.000 €</b>

#### 4.7 Esparru soziosanitarioa

Esparru soziosanitarioaren barne daude, osasun arazo larriengatik, muga funtzionalengatik edota gizarte bazterkeria arriskuagatik, aldi berean arreta sanitarioa eta soziala behar dituzten pertsonentzako zaintzak, horiek modu koordinatuan eta egonkorrean emanda, arreta jarraitutasunaren printzipioaren arabera.

2015ean zehar ekintza eta proiektu ugari egin dira, eta horien artean hauek dira aipagarrienak:

- **Gipuzkoako Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioaren Batzordeak** 2015ean izandako jarduera:

. Gurutze Gorriaren eta Argixaoren Egoitza Unitate Soziosanitarioetarako kasuen balioespena: 2015ean zehar, 294 kasu balioetsi dira Egoitza Unitate Soziosanitarioetarako.

. Buru gaixotasun larria, prozesu infekzio-kutsakorra edo politoxikomania diagnostikatu zaien pertsonen kasuen balorazioa, baita desgaitasun intelektuala eta portaera aldaketak dituzten pertsonena ere: 2015ean 152 balioespen egin dira guztira.

. Eskaren kudeaketarako extraneta martxan jarri da.

- Buru nahasmendu larria duten pertsonentzako bizileku baliabide berriak abian jarri dira: Buru nahasmendu larria duten pertsonentzako 6 banakako apartamentu Betharranen.

- **Partaidetza EAE mailako proiektu soziosanitarioen garapenean**, bertan Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailarekin batera hiru Foru Aldundiek parte hartu baitute.

- **Gipuzkoako Lurralde Historikoan Arreta Soziosanitarioa garatzeko akordioak (Gipuzkoako Plan Operatibo soziosanitarioa 2015-2017).**

- Proiektu eta akordio soziosanitarioen berri emateko partaidetza, Erakunde Sanitario Integratuetan (ESI) garatutako **Batzorde Soziosanitarioen** bidez.

#### 4.8 Informazio estatistikoa

- Zenbait estatistika eta txosten egin dira, bai extranet bidez horiek kanpoan erabiltzeko, bai erakunde barnean erabiltzeko ere. Departamentuko zerbitzuen eskaintza eta eskaeraren bilakaerari buruzko datu nagusiak biltzen dituzten "Eskaintza eta Jarduera" txostenak ere egin dira.
- Beste alde batetik, informazio kuantitatiboa eman zaie hori eskatu duten kanpoko erakundeei: Arartekoari, IMSERSOri, Emaikerri, Eusko Jaurlaritzari, udalei eta abar.
- 2015ean, IZFERekin lankidetzan eta Behagi-Gipuzkoako Gizarte Behatokiaren esparruan, gizarte premien moduluak eta gizarte zerbitzuen sarea automatizatu dira.
- Emakundek koordinatutako informazio sistemen multzoan, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren euskal behatokiaren jardura esparruan, indarkeria matxistaren emakume biktimei arreta emateko adierazleak homogeneizatzeko lana egiten ari dira.

#### 4.9 Ikerketa eta ezagutzaren kudeaketa

- **Desgaituei eta buruko arazoak dituzten pertsonen laguntza emateko eredu berri bat** aurkeztu da 2015ean, laguntza ereduan aldaketak ezartzen dituen.
- Atal honetan ere aipagarria da **Deustuko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmena**, "Gizarte Mintegien Proiektuari" jarraipena emateko, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen esparruan ardura eta diskurtsoa duten eragile ezberdinen artean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak dituen erronka nagusiei buruz hausnartzen eta eztabaidatzen jarraitzeko.

2015ean zehar, gai hauek aztertu dira:

- . "Kasuaren ardura"
- . "Gizarteratze zerbitzuen sarea Gipuzkoan"

- Horrez gain, Gipuzkoako udalerrietako gizarte zerbitzuetako zinegotziei gonbitea luzatu zitzaion, **"Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuak ezagutu" jardunaldian** parte hartzeko. Jardunaldi horren helburua hau zen:

- . Gipuzkoako gizarte zerbitzuen egungo egoera, uneko erronka nagusiak eta Departamentuak legealdirako dituen helburuak ezagutzera ematea.



. Departamentuko egitura, zerbitzuak, prozedurak eta erreferentziako pertsonen berri ematea udal arduradunei.

Jardunaldi horretan, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa, Zorroaren Dekretua —hemendik gutxira onartuko dela aurreikusten da— eta gizarte zerbitzuen esparruko udal eskumenak aztertu ziren, besteak beste.

- 2015eko apirilean prestakuntza jarduera bat egin zen, **mendekotasunagatiko prestazioak dituzten pertsonen eta horien zaintzaileen jarraipena eta babesa hobetzeko.**

- 2015ean Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzko Gizarte Mintegiaren ondorioak aurkeztu dira, hain zuzen ere **Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko Departamentuarekin elkarlanean antolatutako** mintegiarenak. Aipagarria da emaitza horien arabera, erakunde arteko akordio berri baten premia dagoela, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ikuspegiari, edukiari eta finantzaketari lotuta, era horretan, erabiltzaile kopuruaren galera geldiarazi eta inguruneko zaintza sistemaren barne, zerbitzu horren eraginkortasuna hobetzeko.

- Gipuzkoako **bigarren mailako gizarteratzeko sarearen berrantolaketari buruzko mintegia** antolatu da Deustuko Unibertsitatearekin batera

- **Consejo del Pueblo Gitano (Ijito Herriaren Kontseiluan)** parte hartu da.

#### 4.10 Hobekuntza prozesuak

- Balioespen, Orientazio eta Kalifikazio atala berrantolatu egin da, eta desgaitasunaren zein mendekotasunaren esparruan egiten diren balioespenak egiteko modua ere aldatu da, hala, bi balioespen motak modu irmoagoan egiteko.

- 2015ean Plangintza Atalaren Informazio Sistema Hobetzeko Plana abian jarri da, Gipuzkoako gizarte zerbitzuen eskaintza eta eskaerari lotutako informazioa ahalik eta hobekien tratatu zein zabaltzeko.

- Gizarteratze zentroen eta programen arreta hobetzeko prozesua abian jarri da, bizi kalitatearen eredupeko tresna komunak zehaztuz: Banakako Arreta Plana eta abar.

- Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako arreta zerbitzuak hobetzeko prozesua jarri da abian.

#### 4.11 Partaidetza eta lankidetzak beste erakunde, departamentu eta entitateekin.

##### - Diputatu Nagusiaren Alorra

. **Euskararen Normalizazio eta Sustapen Zerbitzuarekin elkarlanean**, euskararen erabilera Normalizatzeko Plana bezalako foru politikak garatzen jarraitzen da.

. Diputatu Nagusiaren Alorreko **Berdintasun Zerbitzuarekin** lankidetzak jardun da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana exekutatzeko. Bertan, 2012-2020 eperako berdintasunaren esparruan Gizarte Zerbitzuak garatzeko helburu eta jarduerak zehaztu dira.

##### - Foru Administrazioako eta Funtzio Publikoko Departamentua

. Lankidetzan eskaini da bulegoak, erregistro elektronikoa, kexen zein iradokizunen kudeaketa eta espediente elektronikoa berrantolatzeak. Horrez gain, langileen arrisku psikosozialak aztertzeak lankidetzak ere eskaini du, era horretan, prebentzioko hobekuntza ekintzak abian jartzeak.

##### - Ogasun eta Finantza Departamentua

. Aurrekontuaren genero eraginaren ebaluazioari buruzko txostena osatzeko parte hartu da.

##### - Eusko Jaurlaritza

. Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan Arreta Goiztiarraren osoko esku-hartzea arautzeko Dekretua osatu eta onartzeko lantaldean parte hartu da.

(2016ko otsailean onartu zen, otsailaren 2ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko 13/2016 Dekretuaren bidez. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/03/1601007a.shtml>)

. Indarkeria matxistaren emakume biktimen arretarako II. Akordioaren jarraipenerako Erakunde Arteko Batzordean eta Lantalde Teknikoan parte hartu da.

- **Gizarteratzeari eta larrialdiko gizarte egoerei** buruzko lantaldean lan egin da.

##### - Imsero

. Mendekotasunaren balioespenerako baremoaren **(MBB/EVE)** aplikazioak duen emaitza ebaluatzeko Lantaldean parte hartu da, baita baremo berri bat osatu eta onartzeko lantaldean ere.

#### - Conseil Général des Pyrénées Atlantiques-CG64

. Ohiko lankidetzaren barne, Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Atalaren laguntzari esker, **Conseil Général des Pyrénées Atlantiques-CG64**ekin hartu-emanak mantendu dira. 2 jardunaldi egin dira prestazio ekonomikoen eta egoitza zerbitzuen erabiltzaileen koordinaketari buruzko informazioa trukatzeko.

#### 4.12 Partaidetza kontseiluak

Gizarte Politikako Departamentuak hiru aholku kontseilu ditu, Departamentuaren gizarte politikak diseinatzeko, martxan jartzen eta segimendua egiten laguntzeko kontsulta organo gisa lan egiten dutenak. Foru Aldundiko ordezkariak, sektore ezberdinetako erakundeak, eskualde mailako kontseiluek, Eusko Jaurlaritzak, udalek eta sindikatuek osatzen dituzten dituzte kontseilu horiek.

- **Adineko Pertsonek Kontseilua:** adineko pertsonek eta adineko pertsonei lotutako entitateen, elkarteetako eta erakundeetako partaidetzarako berariazko foroak.

- **Desgaitasun bat duten Pertsonek Kontseilua:** desgaitasun bat duten pertsonek eta desgaitasunari lotutako entitateen, elkarteetako eta erakundeetako partaidetzarako berariazko foroak.

- **Gizarteratzeko Aholku Kontseilua:** gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonek eta bazterkeriari lotutako entitateen, elkarteetako eta erakundeetako partaidetzarako berariazko foroak.

2015ean osoko 2 batzar egin dituzte hiru Kontseiluek.

Aipagarria da 7 elkarte biltzen zituen plataformatik abiatuta, Adineko Pertsonek Kontseilua sortu dela. Plataforma horren lan ildoak dira pentsio publikoen defentsa, gizarte murrizketen erabateko arbuioa eta adineko pertsonentzako prestakuntza planak eskatzea.

## 5.- 2015ean ONARTUTAKO ARAUAK

### Foru Dekretuak

- 4/2015 Foru Dekretua, otsailaren 3koa, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroari buruzkoa.
- 11/2015 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, aldatzen duena 2012ko ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretua, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza ezartzekoa.
- 7/2015 Foru Dekretua, martxoaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena.
- 12/2015 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko aukera arautzen duena.
- 15/2015 Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa.
- 5/2015 Foru Dekretua, ekainaren 25ekoa, aldatzen duena 2015eko ekainaren 24ko 3/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa.
- 18/2015 Foru Dekretua, ekainaren 25ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarrizko departamentu egiturari buruzkoa.
- 67/2015 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia izendatzekoa
- 68/2015 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko zuzendari nagusia izendatzekoa
- 69/2015 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Erakunde Publikoen zuzendari nagusia izendatzekoa.
- 80/2015 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa, Mendekotasunaren Arretako zuzendari nagusia izendatzekoa.

- 87/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15koa, gehieneko ekarpenak onartzekoa, 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoak, ezarritako zerbitzuetan.

## **Foru Aginduak**

- 75/2015 Foru Agindua, otsailaren 3koa, egoitza zerbitzu eta adineko pertsonentzako zentroen erabiltzaileek eguneko egin beharreko gehieneko ekarpenak zehazten dituen.
- 245/2015 Foru Agindua, martxoaren 24koa, aldi baterako lekualdaketen programen prozedura onartzen duena.
- 463/2015 Foru Agindua, ekainaren 22koa, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroari buruzko zenbait tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzen duena.
- 721/2015 Foru Agindua, urriaren 5koa, Gipuzkoako Boluntariotzaren 2015eko Sariaren deialdia egitekoa.
- 2015eko abenduaren 7ko 883/2015 Foru Agindua, gizarte zerbitzuen arloko 2016ko Ikuskapen Plana onartzen duena.
- 954/2015 Foru Araua, abenduaren 23koa, desgaitasuna dutenentzako egoitza zerbitzu eta eguneko zentroen sailkapena onesten duena.

## **Diputatuen Kontseiluaren erabakiak**

- Diputatuen Kontseiluak 20015eko maiatzaren 5ean hartutako Erabakia, mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea zabaltzekoa.

## **6.- BALIABIDEAK ETA PROGRAMAK**

## 6.1 Balorazioa, Orientazioa eta Kalifikazioa

## 6.1.1. MENDEKOTASUNAREN ETA DESGAITASUNAREN BALORAZIOA ETA DIAGNOSIA

### Deskribapena


Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioari esker, mendekotasun eta desgaitasun egoerak antzeman eta horretarako onartutako tresna teknikoak aplikatuz, egoera horiek mailakutzen dira. Funtzio hori funtsezkoa da mendekotasuna edo desgaitasunen bat duten pertsonen lege aintzatespena egiteko, beren egoera larritasun mailaren arabera antolatzeke, eta gure Zorroko zerbitzu eta prestazioen inguruan orientabidea emateaz gain, horiek eskuratzeko. Indarrean dauden baremo ofizialak aplikatzen dira, baita baliabideen orientabiderako onartutako beste baremo batzuk ere.

Desgaitasunaren orientaziorako tresna berriak oinarritzat hartzen du balioetsitako pertsonaren profila, desgaitasun motaren, babes mailaren, joera arazoen eta adinaren arabera. Desgaitasunaren orientaziorako tresnak RAI tresna aplikatzen du, eta horren arabera zehazten du mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonaren kasua egokia den ala ez egoitza batean edo eguneko zentro batean egoteko, ala aldi baterako egonaldia egiteko.

### 2015eko Estatistika datuak

Mota	Eskaerak	Urtean zehar egindako balioespenak		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira
MBB	13.049 (+% 18,51) *	4.076	6.586	10.662 (+ % 5,70)
RAI	5.668 (+% 13,61)	1.780	3.114	4.894 (- %0,24)
Desgaitasuna	7.563 (+% 8,65)	3.437	2.948	6.385 (+ % 8,03)
<b>Guztira</b>	<b>26.280 (+ % 14,45)</b>	<b>9.293</b>	<b>12.648</b>	<b>21.941 (+ % 4,95)</b>

### Urtean zehar egindako balioespenen bilakaera



\* (+) (-) sinboloek eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

### 2015ean garatutako jardura garrantzitsuenak

- 2015eko abuztuan José Matía Calvo Fundazioari esleitu zitzaion kontratua desgaitasuna balioesteko txosten mediko eta psikologikoak osatzeko zerbitzua, eta mendekotasuna balioesteko eskaera egiten duten pertsonen buruzko informazioa eskuratzeko zerbitzua garatzeko.
- Aipagarria da, 1 maila eta 1 graduko mendekotasunarekin balioetsitako pertsonen mendekotasunagatiko prestazioak eskuratzeko eskubidearen ondorioz, balioespen eskaerak nabarmen egin dutela gora.
- Balioespen atala berrantolatu egin da, baita desgaitasunaren zein mendekotasunaren esparruan egiten diren balioespenak egiteko modua ere.



## 6.1.2 ESKU HARTZE SOZIALAREN ZERBITZUA ARRETA GOIZTIARREAN


### Deskribapena

0-6 urte bitarteko haurrei, familiari eta inguruneari zuzendutako esku hartzeen multzoari esaten zaio arreta goiztiarra. Helburua da garapenerako arazoak dituzten edo izan ditzaketen hauren premia iragankor edo iraunkorrei ahalik eta azkarren erantzutea.

### 2015eko Estatistika datuak

Urtean zehar artatutako pertsona kopurua	Mutilak	Neskak	Guztira
	141	95	236 (+% 6,78)*

### Urtean zehar artatutako pertsona kopuruaren bilakaera



\* (+) (-) sinboloek eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

### 2015ean garatutako jarduera garrantzitsuenak

- 2015ean zehar, Arreta Goiztiarraren zerbitzua arautzen duen Dekretua osatzeko Batzordean (EAE mailan, Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzapean) lanean jarraitu du Foru Aldundiak, Osakidetzako, Osasun Saileko, Hezkuntza Saileko eta EUDELeke ordezkariekin batera.
- Funtzionamenduan jarraitu du Arreta Goiztiarreko Balioespen Taldea (gaztelaraz EVAT) (modu formalean osatu ez den arren). Bertan, Departamentu honetako ordezkari ez gain, Osakidetzako ordezkariak eta Hezkuntza Saileko ordezkariak ere parte hartzen dute.
- Kasuak, balioetsi ondoren, Departamentuko Arreta Goiztiarreko Kabineteen zerrendan ageri diren zentroetara desbideratzen dira.
- Arreta Goiztiarrari buruzko Dekretua onartu arte (2016ko otsailean onartu zen, 2016/03/07ko EHAA), zerrenda horretan kabinete berriak ezartzeko baldintza formalak zehazten dituen dokumentu bat osatu da.

## 6.2 Etxeko laguntza

## 6.2.1 EGOITZETAN ALDI BATERAKO EGONALDIK EGITEKO ZERBITZUA


### Deskribapena

Egoitza zentroetan aldi baterako egonaldiak egiteko programaren xedea, mendekotasuna dutenak etxean zaintzen dituzten familiakoei laguntzea da, aldi batez etxean artatu ezin dituztenerako. Denbora horretan, egoitzan ingesatuta egoten dira, baina betiere aldi baterako bakarrik.

### 2015eko Estatistika datuak

Urtean zehar artatutako pertsona kopurua	Gizonak	Emakumeak	Guztira		
	227	489	716 (- % 5,54)*		
Artatutako pertsonen mendekotasun maila	0. Gradua	1. Gradua	2. Gradua	3. Gradua	Guztira
	% 2	% 14	% 31	% 53	% 100

### Urtean zehar aldi baterako egonaldietan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera



\* (+) (-) sinboloek eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

2015/07/05etik aurrera, 2015eko apirilaren 21eko 12/2015 Foru Dekretua indarrean jarri zenetik aurrera, 6 egunetik beherako aldi baterako egonaldiak ere kontuan hartzen dira.

2015etik aurrera, aurreko ekitaldian hasitako aldi baterako egonaldiak ez dira kontuan hartzen, eta beraz, areagoitzea ez da erreal.

### 2015ean garatutako jardura garrantzitsuenak

-2015eko maiatzean 12/2015 Foru Dekretua argitaratu zen, apirilaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko aukera arautzen duena, era horretan, ordura arte indarrean zegoen araudia, zehaztugabea eta zaharkitua, osatzeko. Dekretu horrek, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen aldi baterako egonaldiak arautzeaz gain, desgaitasunen bat duten pertsonen aldi baterako egonaldiak ere arautzen ditu, orain arte ez baitzuten araudirik.

Dekretu horretan egonaldi mota hauek bereizten dira: atsedenerako epe motzeko eta epe luzeko egonaldiak; ezohiko egonaldiak, ezusteko edo aurreikusi gabeko egoera baten ondoriozkoak; eta azkenik, aukera pertsonaleko egonaldiak.

- Jarduerari dagokionez, III. graduko mendekotasuna duten erabiltzaile kopuruak apur bat egin du gora, eta erabiltzaile autonomoen zein I. graduko erabiltzaileen kopuruak apur bat egin du behera.

## 6.2.2 ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA


### Deskribapena

Etkez etxeko laguntza prebentziozko laguntza zerbitzu bat da: duten mendekotasunarengatik, desgaitasunarengatik edo autonomiarik ezarengatik, eguneroko bizitzako zereginetan beren kabuz autonomoki baliatu ezin direnei hirugarren pertsona baten laguntza jartzen zaie, bizi kalitate hobea izan dezaten, beren etxean bizi izaten jarraituz.

### 2015eko Estatistika datuak

Urtean zehar artatutako pertsona kopurua	Gizonak	Emakumeak	Guztira		
	1.344	3.499	4.843 (-% 2,4)*		
Artatutako pertsonen mendekotasun maila	Autonomoak	1. Gradua	2. Gradua	3. Gradua	Guztira
	% 30	% 31	% 21	% 18	% 100
Urtean zehar emandako ordu kopurua	Autonomoak	Mendekoak	Guztira		
	224.380	925.440	1.149.820 (-% 2,54)		

### Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuan urtean zehar artatutako pertsona kopuruaren bilakaera



\* (-) sinboloak eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

### 2015ean garatutako jarduerak garrantzitsuenak

Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean egindako Gizarte Mintegien esparruan, zerbitzuaren etorkizunari buruzko hausnarketa egin da hainbat erabilerekin batera. Aipagarria da azterketa horrek emaitza kezkarriak eman dituela, erakunde arteko akordio berri baten premia dagoela azpimarratu baitute, Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ikuspegiari, edukiari eta finantzaketari lotuta, erabiltzaile kopuruaren galera geldiarazi eta ingurune zainza sistemaren barne, zerbitzu horren eraginkortasuna hobetzeko.

## 6.2.3 SENDIAN PROGRAMA


### Deskribapena

Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen etxean arreta ematen dieten familiei laguntza emateko baliabideak biltzen dituen programa da Sendian. Baliabide horien barne daude prestakuntza, autolaguntzako taldeak, sostengu psikologikoa, egoitzako iraupen laburreko egonaldiak, asteburuetan eta jaiegunetan eguneko laguntza ematea.

### 2015eko Estatistika datuak

Urtean zehar artatutako pertsona kopurua	Gizonak	Emakumeak	Guztira
	446	919	1.797 (- % 1,96)*

### Urtean zehar artatutako pertsona kopuruaren bilakaera



\* (-) sinboloak eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

### 2015ean garatutako jarduerak garrantzitsuenak

- 2014ko datuekin alderatuz, artatutako pertsona kopuruak % 1,96 egin du behera.
- Sostengu psikologikoko taldeetan 161 lagunek parte hartu dute.
- 2015ean sostengu psikologikoko 20 talde egon dira, eta bertan 306 pertsonen parte hartu dute.
- 2015ean prestakuntza ikastaro hauek egin dira, partaidetza honekin:
  - . Zaintzaileen emozioen kudeaketa: 105 partaide
  - . Autozainketa: 83 partaide
  - . Oinarrizko ikastaroa: 24 partaide
  - . Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zainketa: 16 partaide
  - . Mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoera zailak kudeatzea: 19 partaide

## 6.2.4 LAGUNTZA TEKNIKOEN ETA INGURUNE FISIKORA EGOKITZEKO LAGUNTZEN ZERBITZUA

### Deskribapena


Zerbitzuaren xedea da eguneroko jarduerak egiteko autonomia pertsonala eta autonomiaz baliatzen sustatzea.

### 2015eko Estatistika datuak

Urtean zehar emakida izan duten pertsona kopurua	Gizonak		Emakumeak			Guztira
		1.104		1.733		
Eskatzaile kopurua	1.298		1.900			3.198 (+ % 25)
Onuradunen mendekotasun maila	Balioetsi gabe	0. Gradua	1. Gradua	2. Gradua	3. Gradua	Guztira
	235	94	485	682	1.341	2.837
Balioetsitako pertsonen desgaitasun maila	Balioetsi gabe	<33	33-64	65-74	>=75	Guztira
	992	16	474	300	1.055	2.837
Jasotako laguntza mota	Mugikortasuna	Irisingarritasuna	Komunikazioa	Altzariak eta bestelako higiene elementuak		Transferentziak garabiak eta abar)
	514	667	192	5.482		564
	Errekuperagarria		Errekuperazina	Stocka		Guztira
	173		1.637	5.609		7.419

\* (+) simboloak eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

### Urtean zehar emakida izan duten pertsona kopuruaren bilakaera



### 2015ean garatutako jarduera garrantzitsuenak

Laguntza teknikoaren onuradun kopuruan egon den hazkundearen arrazoi nagusia da mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen, Ingurunean Zaintzeko Prestazio Ekonomikoa edo Ingurune Familiarrean Zaintzeagatik Diru Laguntza bezalako prestazioei esker, gero eta gehiago etxean baitaude.

## 6.2.5 TUTORETZA ZERBITZUA

### Deskribapena

Judizialki ezindutako pertsonak babesten ditu zerbitzu honek, baldin eta ez badute familia laguntzarik, hau da, beren eskubideak defendatuz eta beren ondasun materialak kudeatuz.


Hurkoa eta Atzegi Fundazioekin sinatutako hitzarmenen bidez eskaintzen da zerbitzu hau.

### 2015eko Estatistika datuak

Esparrua	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Adinekoak	93	163	256 (+ % 6,9)*
Desgaituak	52	57	109 =
Buru gaixotasuna duten pertsonak	141	86	227 (+ % 0,4)
<b>GUZTIRA</b>	286	408	<b>592 (- % 3,11)</b>

\* (+) (-) eta = sinboloek eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

### Urtean zehar tutoretza jasotako pertsona kopuruaren bilakaera



### 2015ean garatutako jardura garrantzitsuenak

2015ean 'Hauskortasunari buruzko Azterlanaren' emaitzen aurrerapena aurkeztu du Hurkoak. Egindako analisiaren emaitza gisa, iradokizun batzuk egin dira hauskortasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko estrategiak eta jardura planak proposatzeko orduan, horiek kontuan har daitezkeen. Hala, kasuak azkar antzemateko tresna edo metodologiaren premia azpimarratzen da, baita gizarte zerbitzuen zorroa garatzea ere, kasu ezberdinen aurrean zein laguntza eta baliabide dauden zehazteko; horrez gain, zerbitzu soziosanitarioen koordinazio planifikatu eta egituratu egitea, laguntza sare koordinatu garatzea; tutoreentzako edo hauskortasun egoeran dauden pertsonen laguntzen dieten pertsonentzako laguntza planak egitea; egoera guztien jarraipen eta laguntza egitea (ospitaleratzea, ospitalean alta ematea eta abar); baita gizarte oro har sentsibilizatzea ere, inor ez dadin ikusezin bihurtu edo inor ez dadin espazio ikusezinetan geratu.

### **6.3 Mendekotasun egoeran eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako arreta zentroetan**



### 6.3.1 ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA ZENTROAK

#### Deskribapena


Ohiko etxebizitza edo behin betiko etxebizitza gisa erabiltzen diren zentroak dira, batzuetan ere behin-behineko zentro gisa, hain zuzen ere 2 eta 3. graduko mendekotasuna duten adineko pertsonentzat (eta salbuespen gisa 1. graduko mendekotasuna duten pertsonentzat). Egoera horretan dauden pertsonak ezin dituzte beren ohiko ingurunean edo bestelako egoitza-aukera arinagoetan beren premiak behar bezala bete, laguntza maila handiagoa behar baitute, eta horrelako zentroetan osoko eta etengabeako arreta ematen baitzaie.

#### 2015eko Estatistika datuak

<b>Baimendutako plaza kopurua</b>	<b>5.389 (-15)</b>											
<b>Itundutako plaza kopurua</b>	<b>4.458 (+31)</b>											
<b>Artatutako pertsona kopurua 12/31</b>	<b>Profil psikogeriatricoa</b>			<b>Profil soziosanitarioa</b>			<b>Profil iraunkorra</b>			<b>GUZTIRA</b>		
	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>G</b>	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>G</b>	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>G</b>	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>G</b>
	186	349	535	45	50	95	1.093	2.701	3.794	1.324	3.100	4.424 (+ % 0,5)*
<b>Urtean artatutako pertsona kopurua</b>	<b>Profil psikogeriatricoa</b>			<b>Profil soziosanitarioa</b>			<b>Profil iraunkorra</b>			<b>Guztira</b>		
	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>G</b>	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>G</b>	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>G</b>	<b>G</b>	<b>E</b>	<b>G</b>
	272	471	743	146	128	274	1.430	3.465	4.895	1.848	4.064	5.912 (+ % 2)
<b>Artatutako pertsonen mendekotasun maila</b>	<b>0. Gradua Baloetsi gabe</b>			<b>1. Gradua</b>			<b>2. Gradua</b>			<b>3. Gradua</b>		<b>GUZTIRA</b>
	% 2			% 12 (+ % 1)			% 36 (+ % 1)			% 50 (- % 2)		% 100
<b>Itxaron zerrenda</b>	<b>Itxaron zerrendako pertsona kopurua 12/31n</b>											
	743 (+ % 7,4)											
<b>Eskaera egin eta zerbitzua erabili arteko denbora (egunetan)</b>	<b>Profil psikogeriatricoa</b>			<b>Profil soziosanitarioa</b>			<b>Profil iraunkorra</b>					
	<b>0. Gradua</b>			<b>1. Gradua</b>			<b>2. Gradua</b>			<b>3. Gradua</b>		
	-			176 (-118)			13 (+2)			79 (-16)		
	174 (+9)			9 (+1)			7 (-6)			149 (+51)		
	186 (+28)			12 (-4)			168 (+16)			150 (+2)		

\* (+) (-) eta (=) simboloei eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

#### 12/31n artatutako pertsona kopuruaren bilakaera



#### 2015ean garatutako jarduera garrantzitsuenak

- 2015ean iaz baino 31 plaza gehiago itundu dira. Hala ere, itxaron zerrendako pertsona kopuruak gora egin du, baita eskaera egin eta zerbitzua erabili arteko denborak ere, batez ere populazioa zahartzen ari denez, eskaerak gora egin baitu.
- Halaber, aipatu behar da gero eta zaharragoak direla zerbitzura iristen diren erabiltzaileak: alden batez besteko adina 84 urtekoa da; 2014an 83 urtekoa zen, eta 2013. urtean 81 urtekoa.

## 6.3.2.- MENDEKOTASUN EGOERA DAUDEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROAK

### Deskribapena


Mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroen zerbitzuak arreta integrala ematen die egunez, eguneroko bizitzako eginkizunak burutzeko muga fisiko edota psikiko handiak dituztelako, beren ohiko ingurunean moldatzeko zailtasuna dutenei.

### 2015eko Estatistika datuak

Baimendutako plaza kopurua	1.681 (+5)*				
Itundutako plaza kopurua	1.471 (+9)				
Artatutako pertsona kopurua 12/31	Gizonak		Emakumeak		Guztira
	380		1.015		1.395 (+2)
Urtean artatutako pertsona kopurua	Gizonak		Emakumeak		Guztira
	570		1.421		1.991 (- % 0,3)
Artatutako pertsonen mendekotasun maila	0. Gradua	1. Gradua	2. Gradua	3. Gradua	Guztira
	% 1 =	% 19 (+ % 6)	% 37 (+ % 3)	% 43 (- % 10)	% 100
Itxaron zerrenda	Itxaron zerrendako pertsona kopurua 12/31n				
	189 (-15%)				
Eskaera egin eta zerbitzua erabili arteko denbora (egunetan)	0. Gradua	1. Gradua	2. Gradua	3. Gradua	
	429 (+282)	147 (+26)	164 (+15)	198 (+23)	

\* (+) (-) eta (=) sinboliek eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

### 12/31n artatutako pertsona kopuruaren bilakaera



### 2015ean garatutako jarduera garrantzitsuenak

- 2015ean iaz baino 9 plaza gehiago itundu dira.
- Aipagarria da itxaron zerrendako pertsona kopuruak apur bat behera egin duela.

### 6.3.3 DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA ZENTROAK

#### Deskribapena


Eguneroko beharrianak beren ohiko ingurunean bete ezin dituzten eta, hortaz, mendekotasun egoeran dauden pertsona ezinduei ohiko etxebizitza iraunkorra, edoaldi baterako bizilekua, ematera bideratutako bizikidetzak zentroak dira.

#### 2015eko Estatistika datuak

Baimendutako plaza kopurua	829 (+20)				
Itundutako plaza kopurua	804 (+21)				
Artatutako pertsona kopurua 12/31	Gizonak	Emakumeak	Guztira		
	458	342	800 (+ % 5)		
Urtean zehar artatutako pertsona kopurua	Gizonak	Emakumeak	Guztira		
	526	393	919 (+ % 14)		
Artatutako pertsonen desgaitasun maila	<33%	33%-64%	65%-74	%>=75%	Guztira
	% 1 =	% 9 =	% 13 (+ % 1)	% 77 (- % 2)	% 100
Itxaron zerrenda	Itxaron zerrendako pertsona kopurua 12/31n				
	104 (- 10%)				
Eskaera egin eta zerbitzua erabili arteko denbora (egunetan)	% 33- % 64	% 65- % 74	>= % 75		
	1.233 (+441)	604 (-22)	471 (-92)		

\* (+) (-) eta (=) sinboloek eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

#### 12/31n artatutako pertsona kopuruaren bilakaera



#### 2015ean garatutako jarduera garrantzitsuenak

- 2015ean iaz baino 21 plaza gehiago itundu dira.

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru ardurako sarean integratutako Etxebizitza Zerbitzuetan, Eguneko Zerbitzuetan eta Zerbitzu Okupazionaletan Desgaitasunen bat duten Pertsonen eta Buru Nahasmendua duten pertsonentzako Arreta Eredua aurkeztu da 2015ean.

- Zerbitzu hori erabiltzeko eskaera kopuruak % 25 egin du gora.

### 6.3.4 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROAK

#### Deskribapena


Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentrozen zerbitzuak arreta integrala eskaintzen die egunez desgaitasuna dutenei, diziplina anitzeko talde batek garatutako jarduketara antolatuta eta koordinatuen multzo baten bidez, artatutako pertsonen garapen pertsonal eta soziala errazteko, baita horien autonomia eta gizarteratzea ere.

#### 2015eko Estatistika datuak

Baimendutako plaza kopurua	680 (+19)*		
Itundutako plaza kopurua	642 (+16)		
Artatutako pertsona kopurua 12/31	Gizonak	Emakumeak	Guztira
	340	291	631 (+ % 2,44)
Urtean zehar artatutako pertsona kopurua	Gizonak	Emakumeak	Guztira
	361	315	676 (+ % 2,11)
Artatutako pertsonen desgaitasun maila	% 33- % 64	% 65- % 74	>=% 75
	% 1 =	% 7 =	% 92 =
Itxaron zerrenda	Itxaron zerrendako pertsona kopurua 12/31n		
	50 (+% 14)		
Eskaera egin eta zerbitzua erabili arteko denbora (egunetan)	% 33- % 64	% 65- % 74	>= % 75
	648 (-165)	759 (-201)	527 (-230)

\* (+) (-) eta (=) sinboloek eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

#### 12/31n artatutako pertsona kopuruaren bilakaera



#### 2015ean garatutako jarduera garrantzitsuenak

- 2015ean iaz baino 16 plaza gehiago itundu dira.
- Zerbitzu hori erabiltzeko eskaera kopuruak % 26 egin du gora.

#### **6.4 Buru gaixotasuna duten pertsonen arreta zentroetan**

## 6.4.1 BURUKO GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA ZENTROAK

### Deskribapena


Buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonen arreta ematen dieten egoitza zentroak dira, beren gaitasun eta abilezia pertsonalak eta harremanetarakoak hobetzeko prestazioen bidez, pertsona horien garapen pertsonala, gizarteratzea eta ingurune partaidetza sustatzeko eta oro har, beren bizi kalitatea hobetzeko.

### 2015eko Estatistika datuak

Baimendutako plaza kopurua	199 (+6)*		
Itundutako plaza kopurua	198 (+6)		
Artatutako pertsona kopurua 12/31	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztira</b>
	132	56	188 (- % 0,5)
Urtean zehar artatutako pertsona kopurua	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztira</b>
	160	75	235 (+ % 0,5)
Artatutako pertsonen desgaitasun maila	% 33- % 64	% 65- % 74	>= % 75
	% 8 (+ % 1)	% 64 =	% 28 (-% 1)
Itxaron zerrenda	<b>Itxaron zerrendako pertsona kopurua 12/31n</b>		
	54 (-19%)		
Eskaera egin eta zerbitzua erabili arteko denbora (egunetan)	% 33- % 64	% 65- % 74	>= % 75
	374 (+288)	401 (+34)	159 (+125)

\* (+) (-) eta (=) sinboloek eta % ondoko zifrek aurreko urtearekin alderatuta egon den bilakaera adierazten dute

### 12/31n artatutako pertsona kopuruaren bilakaera



### 2015ean garatutako jarduera garrantzitsuenak

- 2015ean iaz baino 6 plaza gehiago itundu dira.
- Itxaron zerrendak % 19 egin du behera, plazarik libre ez dagoenez, eskaera kopuruak behera eginen duelako, eta baliabide horren benetako erabilgarritasuna apala denez, premia handiko kasuak bakarrik izapidetzen baitira.
